

• «Mapfre Mutualidad aseguru etxeak euskara hutsez dauden bio-
rrikoak zabaldu ditu eta benetan poztu naiz etxeko buzoian jaso dudan-
nean» adierazi du irakurle batek.



Euskararen barnetik eta ataritik




• «Errenta Aitorpenen garaia iritsi da eta berriro ere euskarazko inprima-
kiak lortzeko zailtasunekin topo egin dut. Aurten hiru estanko pasa ditut eus-
karazkoa lortzeko. Dagokion administrazioak behingoz hartu ditzala hartu
beharreko neurriak. Urtero berdin ibili beharra...!» salatu du donostiar batek.

Euskararen alde egiten dena txalotu eta euskararen kontra egiten dena aipatzeko aukera duzu 43 12 28 tfnoan.

Joseba Jaka, adiorik ez

Presaka ikusi izan duzu seguruenik beti Donostiako bazterretan, eta ez maratoia presatzen ari zelako -behin baino gehiagotan burutu zuen, hori bai, maratoia; baina urtean behin izaten da hori, eta Josebak entrenamendurako asti handirik ez zeukan-. Joseba, ordea, beti ikusi izan duzu seguruenik larri-larri, bizi-bizi, ordua jarrita zeukan elkarrizketara edo bilerara iritsi beharrean. Eta hala ere, sarritan berandu iritsiko zen; baina bazenekien ez zela lasaikeriagatik, edo arduragabekeriagatik; esku artean zituen egiteko guztietara heldu beharrean zebilelako baidzik. Josebaren bizitasuna



ETB

ez zen urduritasuna -edo denetan egon nahia eta ezertan ez egotea-, ondo baitzekien aurrean zuen lagunari (edo bileran zeudenei) lasai entzuten, beti adi, beti erne; bizirik ipintzea -martxan jartzeamerezi zuen edozein asmo

esku artean hiltzen ez uzteko grina zen Josebaren bizitasuna: ibileran, hitzetan, begietan, gorputz osoan ageri zuena.

Euskal kultura indartzea eta sendotzea zuen bere dinamikaren helburua. Horretarako bere

Mila esker Joseba

a izkorri mendia-
ren magalean emango zaio azken agurra Joseba Jakari. Beundan, Otzaurte eta San Adrian artean, aiereratuko dira bere errautsak larunbatean, hilak 20, 16.30etan. Igandean, 18.30etan, elizkizuna egingo da Donostiako Jesuiten elizan.

Asko zor dio BAGERAK eta, bereziki, IRUTXULO aldizkariak Joseba Jakari.

buruan etengabe pizten zituen edota besterengandik adeitasunez jasotzen zituen ideia baliotsuak, egitasmo eta obra -enpresa- bihurtzen zituen berak. Eta bizia ematen zien horiei.

Horregatik, Joseba bizi hori hila dela esatea kontraesana da. Ziur nago, beraz, Josebaren biziak biziberriturik iraungo duela luzaroan berak bizitu dituen euskal kultur-gintzako inguru eta eremu guztietan.

Mila esker, eta... ez adiorik, Joseba Jaka!

PAULO AGIRREBALTATEGI

JESUS M^a ARIZALA

MEDIKU DENTISTA ESTOMATOLOGOA (TOULOUSEKO UNIBERTSITATEA)

ASEGURUA: ASISA, PREVIASA, LAGUN ARO,
DIPUTAZIOA, CAPISA, IPRESA, MEDIFIAT,
HAURREN HOTZ PROGRAMA

Ferrerias plaza, 5 behegaina

(Amara Berri ikastetxearen parean) • Tfnoa.: 45 90 45



Janari bereziki aukeratuak

Enkarguz egindako platerak

Mari kalea 5, beheka (Kaiaren gainean) • Tfnoa.: 43 15 40